

DONOSTIAKO BIGARREN SAIHESBIDEA

Jauregi auzoko bizilagunek aldaketak eskatzen dituzte

Aurreproiektuan, bideak Garmendia-enea baserria aurrez aurre harrapetzen du eta beste zenbait etxe oso inguruan. Erremedioa bidea beheraxeagotik egitea dela diote auzotarrek.



Litekeena da paraje hau gutxi
barru aldatzea.

DONOSTIAKO bigarren sai-
hesbideak, Errekaldetik Jaure-
gi alderako norabidea du
aurreproiektuan, (Gasolinde-
giaren gainaldetik), eta handik
Young Play aldera bideratu
nahi dute.

GARMENDIA-ENEA BASERRIA

Jauregi auzoan Garmendia-
enea baserria harrapatuko du
errepideak bete betean; baita
beste zenbait etxeren atariko
patxada eta terrenoak ere.
Auzotarrak ez daude gustora,
Diputazioak ezer alda-tzeko
borondaterik erakutsi ez
duela-eta.

ERREMEDIOA

Bertakoen hitzetan erreme-
dioa erraza da. Bidea “pen-
tsatutakoa baino beheraxe-
gotik egin eta kitto”. Modu

horretan errepideak Txurruka
markesaren lur mutur bat
jango luke, ordea, eta hori
traba izango delakoan
daude. □



Euxebia Zabala

Garmendia-enea baserrikoa

“Lotsarik baldin
badute behintzat
azpitik egin
beharko dute,
nahiko terreno
badago-eta”

‘Ehiza ibilbidea’ gaur 10:00etan Santa Barbaran

Platerak piztiak balira bezala botako dituzte, jendea ehiza mota guztietan probatzeko. Txantxangorriko bazkideentzako da.

TXANTXANGORRI elkarteak *Ehiza
ibilbidea* antolatu du gaurko.
Lehiaketa honetan platera txori, pizti
edo animalia ezberdinen ordezko iza-
ten da: erbiaren ordezko, platera salto-
ka joateko moduan botako da; azpi-
azpitik galeperraren hegaldia ordezka-
tzeko; goitik uso pasea irudikatzeko...
hau da, leku gutxian ehiza mota guztie-
tan probatzeko aukera izango da.

TXANTXANGORRIKO BAZKIDEENTZAT

Parte hartu dezaketenak Txantxangorri
Elkarteko bazkideak dira. Irabazleak bi
lagunentzako afari bat izango du “jatetxe
on” batean. Horrez gain zazpi sari gehia-
go egongo dira, eta baita bi lagunentzako
afari baten zozketa ere.

Izen emateko 09:00etatik 10:00etara
Santa Barbarako tiro zelaira azaldu. □

OIAGAREN DEBUTA PROFESIOLETAN

“Partidu ona egiten badut gustora”

22:00etan Esnal-Zubiaga Zabala-Oregiren aurka eta
Legorburu-Alonso, Oiaga-Fuerteren kontra. Kirolde-
gian; sarrerak bertan.

ZEIN DA OIAGA

■ 6 urterekin hasi
zen pelotan.

■ 7 zituela bi txapela
jantzia da.

■ ‘Martin’, Esnal ai-
ta-semeak, Una-
nue... izan ditu
entrenatzaile.

■ Gipuzkoako txape-
la bitan jantzi du.

■ Aurtengo Herri ar-
teko Txapelduna da.

■ Gustoko pelotaria:
Patxi Eugi.



Baietz hortxe tanto!

■ ZER sentitzen du Herna-
niko bigarren pelotari pro-
fesionalak?

Beno, urduri nago, baina, go-
goz. Badakit zaila dela, bai;
hala ere, lehendik torneo bat
jokatu nuen profesionalekin.
Atzelari onenarekin jarri nin-
duten eta irabazi egin genuen.
Oraindik gauza asko ikasiko
ditut eta indarra ere beste hiru
bat urtetan etorriko zait.

■ Zer behar du pelotari
profesionala izateko?

Erregularra izatea. Dohai eta
joko minimoak behar dira;
zerbait berezia behintzat, bai.
Onena, noski, denetik izatea!
Hala ere, gaur eguneko mate-
rialearekin indarra daukanak
irabazteko asko du.

■ Hernanin bi pelotari
profesional eta biak aurre-
lariak...

Horrela da eta zer egingo da,
ba! Jendeari 13-14 urterekin
antzematen zaio aurrelaria
edo atzelaria den: gorputzez,
estilo... hori ezin da hola eta
hola aldatu.

■ Entrenatzaile ere ba
omen zara...

Bai, eta seguruena datorren
ikasturtean Gasteizera joango
naiz Kirol Hezkuntza ikaste-
ra.


■ Noiz ikusi behar dugu
Iosu Oiaga Mikel Goñiren
aurka?

Hernanik Kontxako bandera
irabazten duenean! □

Gaur eguerdiko 12:00etan Juan
Bataiatzailearen parrokan
ezkonduko dira

JON GOIKOETXEA
IDOIA AIZPURUA

Zorionak eta egin
zoragarria pasa


ITXASPE
ARRANDEGIA

Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

UDARAKO MERKEALDIAK

Jendeak behar duenean erosten du

Oraindik ere jendea mugitzen dute, baina, gehienak ez daude merkealdiei begira.



Ekainerako hasiak ziren denda batzuek behera-
pen bereziak eskaini-
zen. Batzuek letrak ordaindu
behar eta diru premiak estutu-
ta. Besteek beren lan estiloa
merkealdiak lantzea delako:
merkealdiko generoa erosi eta
huraxe saldu. "Kalitateari be-
giratu eta denda zure gustora"
antolatu nahi izanez gero,

ordea, merkealdiak "galtze-
ko" bidea izan litezke. "Erosi,
ba, ona gero likidatu egin
behar duzula jakinda!"

UDARAKOAK ESKASAK
Dendariek ez dituzte asko fa-
matzen. "Jendeak beste gauza
batzuk dauzka buruan. Neguan
orosteko grina haundiagoa iza-
ten da: Eguberriak, opariak..."

INGURUTIK HERNANIRA
Duela gutxiko azterketa batek
hernaniarrak Donostian 'jaz-
ten' zirela erakutsi arren, alde-
rantziz ere gertatzen omen da.
Kanpora, batez ere gazteak joa-
ten dira, goiz edo arratsalde
pasa. Ez hain gazteek gehiago
erosten dute bertan: "ondo
atenditzea nahi dute, eta hori
da gure arma." □

NOLA DARAMAZKITE DENDARARIEK UDARAKO MERKEALDIAK?



Antoni Aranburu
Landerrekoa

"Merkealdiek kalte
haundia egiten diote
komertzioari. Ni 15
egun beranduago
hasten naiz."



Pello Etxebeste
Urratsekoa

"Geldi doaz, geldi.
Udarako merkeal-
diak ez dute ezer-
tarako balio denak
kanpora doaz-eta."



Leonor Patzeko
Loherrekoa

"Dena %50ean jarri
arte inor ez da
mugitzen! Neguan
askoz jende gehia-
go izan genuen."



Begoña Aldasoro
Lirainekoa

"Lehengo jende
pila haiek bukatu
ziren. Gainera,
denda haundiek
jota utzi gaituzte."

HITZ BITAN



✓ PRESOK

Presoen Aldeko Martxa Nazionalaren amaierako ekitaldia gaur. N1 errepidean giza katea egingo da. Hernaniko bi kilo-
metroak osatzeko 11:15etan elkartuko dira Atsegindegin eta
bertan antolatuko dute zein non jarri.

✓ KONTZERTUA

Iraulio Panttalon Band taldeak kontzertua eskainiko du gaur 10:30etan Milagrosa elizan. "Martinen bizitza" konta-
tuko dute bertsotan musika ederrez apainduta. Sarrera debalde
izango da.

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943464622
943 335533
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: **Sagastiberri**
Urbieta, 7
☎ 943552941
- ▶ Gauez: **Iturralde**
Usurbil, 13 Poligonoa, 9.
☎ 943363395



Telemar
ITXASTE S.L.

Telyco denda
Elkano 13, HERNANI

☎ 943 33 26 00

'Telefonica'ko banatzaile eskusiboa, Movistar, zentralitak,
'Centrex', Telefono altak, Telefonía mugikorra,...

Irekiera eskaintza:

'Pack Activa' 6.900 ptatik + motxila + 7.000 pta deietan

URGASKA, S.L.

GAS INSTALAKUNTZA
MATERIAL SALMENTA

K21

* ASISTENTZIA TEKNIKOA,
GAS ETA BERONGINTZAN.
* GAS PROPANO, BUTANO
ETA NATURAL MANTENUA

Aristizabal 9 Beh
Tel: 943 33 37 4

BERTSO MUSIKATUAK HERNANIN:

**IRAULIO PANTTALONE
BAND**



MILAGROSAN (BAI, ELIZAN)
UZTAILAK 29; 22:30 ETAN
DOHAIN

IRUNE
Estetika

- DEPILAZIOAK
- BETILEAK
- MASAJEAK
- AURPEGIRAKO
TRATAMENDUAK
- MAKILAJEA
- MANIKURA
- PEDIKURA
- SOLARIUNA

eta orain...

ZUTIKAKO SOLARIUNA

Kardaberaz, 51-Behea -Tlf. 943 55 71 13 -20120 HERNANI